

Liburutegiak

Kulturaren Euskal Planaren Liburutegien taldearen
bileretan oinarritutako txostena

2003ko Urria

1. SARRERA: DIAGNOSTIKOA	3
2. AMIA ANALISIA	3
INDARRAK	4
AHULEZIAK	6
MEHATXUAK	8
AUKERAK	8
3. JARDUERA-ILDOAK	8
LEHENTASUNEZKO JARDUERA-ILDOAK	10

1. SARRERA: DIAGNOSTIKOA

EAEEn, liburutegi-kopurua eta liburutegi-zentroek eskaintzen dituzten zerbitzuen kopurua igo egin da, alabaina, liburutegi-zentroen artean koordinazio falta eta lankidetzaren urria dago, baliabideak eta zerbitzuak optimizatzeko sistema integraturik ez dagoelako.

Gizarteak gero eta gehiago aintzatesten du liburutegien zeregina eta horiek eskaintzen dituzten ekipamenduak eta zerbitzuak; administrazioetako kultur departamentuetan, ordea, pisu txikia dute erakunde horiek, eta hori deigarria da. Hori, bereziki, liburutegiei buruzko araudi orokorrik eta zehatzik ez dagoelako gertatzen da, eta EAEko liburutegi-sistema egituratzeko zerbitzu zentralik ez dagoelako .

Liburutegien sektoreko ordezkariak batik bat bi alderdi azpimarratzen dituzte; batetik, profesionalentzako –gehienak bokaziozkoak– trebakuntza-programarik ez egotea, eta, bestetik, EAEko zentroetan liburutegiak kudeatzeko programa informatiko desberdinak erabiltzea. Bigarren alderdi hori etorkizunerako zailtasun erantsia da, liburutegi-zentroak koordinatzeari eta Katalogo Kolektibo hipotetiko bat –sektorearen beste nahietako bat– kudeatzeari dagokionez.

Azkenik, azpimarratu behar da garrantzitsua dela elebitasuna eraginkortasunez ezartzea liburutegietako katalogoen eta artxiboen kudeaketan, orain arte lortu den euskalduntzea oraindik ez baita nahikoa.

2. AMIA ANALISIA

INDARRAK

- Administrazioek liburutegiak aintzatesten ez dituzten arren, gizarteak, oro har, aintzatesten ditu.
- Informazioaren eta jakintzaren gizartearen garapena laguntzeko prozesuan liburutegi-zerbitzuen gorakada, liburutegiek Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Berrien (IKTB) aurrean garatu behar duten zereginak nazioartean duen aintzatespenarekin lotuta (Europako Kontseilua, IFLA, UNESCO) . Zerbitzuak asko hobetu dira informazioaren eta komunikazioaren teknologien garapenari esker, eta informazio-kantitate handia eskuratzeko eta hedatzeko erraztasunak jarri dituzte.
- Fondoak eta zerbitzuak askotarikoak dira, eta publiko eta behar desberdinak betetzen dituzte.
- Udal-liburutegi publiko ugari daude, eta horiek Liburutegi Sistema Nazionalaren gehiengo osatzen dute (EAEko 250 udalerrik liburutegia dute).
- Liburutegi-zentroen sarea zabala da: 280 udal-liburutegi, foru-liburutegiak, unibertsitate-liburutegiak (EHU, Deustu, Mondragon), liburutegi espezializatuak, Eusko Jaurlaritzako liburutegiak (zentrala, sailtakoak, erakunde autonomoetakoak), eskola-liburutegiak (unibertsitatez kanpoko 873 ikastetxeetako % 70ek du liburutegi-zerbitzua) eta bestelako liburutegiak (EAEtik kanpokoak eta euskal gaietan espezializatuak, etab.).
- Hiru hiriburuetan eta halako mailako herri batzuetan (Getxo, Santurtzi, Barakaldo, Basauri) banatuta dauden liburutegi-zentroen sarea pixkanaka garatzen ari da; zerbitzua gerturatzen diete herritarrei. Egitura eta garapen orekatua eta antzekoa du hiru probintzietan
- Dinamismoa dago hainbat mailatako proiektuekin –koordinatu gabe eta sistematikoki ez izan arren–, trebakuntza- eta ikerketa-dinamikak indartzen laguntzen duten erakunde profesionalen eta entitate espezializatuen ekimenen inguruan: Euskal liburutegia; Prentsa digitalizatzeko proiektu kooperatiboa; Gipuzkoako Liburuzainen Elkarte; Artxibozain, Liburuzain eta Dokumentazainen Euskal Elkarte; Joana Albret

Bibliotekonomia Mintegia; Jon Bilbaok eta Jose Mari Torrealdaik egindako bildumalanak, etab.

- Ahalegin handia egin da liburutegien katalogoak informatizatzeko; udal-liburutegien katalogo kolektiboa egiteko eta funts bibliografikoak eta azpiegiturak hobetzeko.
- Erakunde pribatu batzuek (Elizak, elkarteek, erakundeek...) ondare bibliografikoaren sistema integratu baterako aberasgarriak diren liburutegi espezializatuak dituzte.
- Immigrazio handiko garaian gaude, eta liburutegiak kolektibo hori inolako oztoporik gabe (ekonomikoak, linguistikoak, kulturalak, etab.) hartzeko prestatuta dagoen erakundeetako bat dira
- Sektoreko profesional gehienen trebakuntza-maila handia da.¹
- Egun antzemandako gabeziak gainditzeko interes handia dago. Erakundeen artean, lankidetzan aritzearen eta Euskal Liburutegi Sistema Nazionala (ELSN) eratzearen aldeko jarrera dago.

¹ Puntu honetan, taldekideen artean iritzi desberdinak daude; ahuleziak irakurtzean egiaztatu ahal izango da.

AHULEZIAK

- Araudirik eza eta liburutegi-zentroak sistema integratu baten baitan antolatzeko falta dago (Adibidea: Euskal Liburutegi Sistema Nazionalaren (ELSN) eta hiru lurralde historikoetako ondare-liburutegien arteko bereizketa). Liburutegi-zerbitzuak ez daude sendotuta, eta hori beharrezkoa da egun gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari baitira.
- Sinergiak galtzen dira funtsen eta zerbitzuen ugaritasuna optimizatzeko gai den sistemaren sendotze eta garatze faltagatik. Gainera, liburutegiak kudeatzeko programak ugariak dira, horrek etorkizunean kudeatzea zailtzen du, eta ez dago euskal liburutegi-sistema bat antolatzeko eta garatzeko gai den zerbitzu zentralik.
- Liburutegien arloan, hutsune administratiboa dago kooperaziorako, trebakuntzarako eta abarretarako programetan. Liburutegi guztiak laguntzarik gabe sentitzen dira.
- Lau administrazioak bat egin dute, eta horrek zailtasunak sortzen ditu.
- Era askotako zentroak daude eta, ondorioz, funts- eta zerbitzu-mota asko.²
- Liburutegiak kultur sailek bakarrik aintzatesten dituzte. Bestalde, aipatzekoa da liburutegien sektoreak dagozkion administrazioetako kultur departamentuetan duen pisu espezifiko txikia (aurrekontu-horniduretan islatzen da). Liburutegiek Europako gizartean (Europako Kontseilua, UNESCO) eta, bereziki, IKTBen garapenean duten zeregina administrazioak ezagutzen ez duelako gertatzen da hori
- Gizartean ondo onartutako ekipamendu bati ez zaio nahikoa garrantzi ematen ezagutzen ez delako, beste alorrek liburutegi-sisteman parte hartzen ez dutelako, indar kolektiboa falta delako, egituragatik, lan isila delako eta beste zerbitzuak baino gutxiago nabarmentzen den zerbitzu iraunkorra delako.

² Taldean ez daude erabat ados ahulezia honi buruz, baina garrantzi handia eman dio zentroak era askotakoak izateari eta horrek dituen ondorioei.

- Ez dago liburutegi-tradiziorik; izan ere, garapen-zerbitzu ireki hori berria da.
- Liburutegiko langileen ezegonkortasuna (langileek ia erabat zerbitzuan lan egiten dute), espezialista gutxiegi dago, askotan diru-laguntza urria da eta ordutegiak ez dira egokiak. Kolektibo profesionala bokaziozkoa da, EAEk araututako lanbide-trebakuntzarik gabea eta gutxi aintzatetsia.
- Katalogoen euskalduntze-maila eskasa da (liburutegi gutxi dute katalogoa euskaraz edo bi hizkuntzatan) eta katalogo kolektibo elebiduna ezin da garatu Eusko Jaurlaritzak hautatutako egungo tresna informatikoarekin.
- Sektorea garrantzitsua izan arren, frustrazioa handia da aurreko esperientziek fruiturik eman ez dutelako.
- Ondare Historikoaren Legearen bitartez eskumenak foru-aldundietatik Eusko Jaurlaritzara pasatu ziren, eta baliteke hori izatea liburutegi-sistemaren egoera txarraren arrazoia; izan ere, Eusko Jaurlaritzak ez dio baliabiderik ematen sail honi, eta ezin du eskumen hori bere gain hartu.
- Katalogoak egiteko kanpo-kontrataziora jotzen da etengabe, eta prozesu teknikoaren kalitatea ez da nahikoa kontrolatzen
- Ez dago euskal liburutegi nazionalik.
- Tresna linguistiko espezializatuak gutxi garatuta daude (terminologia, teknikak...)
- Eskola-liburutegien sarerik ez dago eta, orain arte, eremu horretan nahiko gutxi egin da.
- Liburutegiak gizartean ez dira sustatzen, eta liburutegi-zerbitzuek garatzen dituzten jarduerak ez dira zabaltzen
- Euskadi Informazioaren Gizartean planak ez ditu liburutegiak jakintza zabaltzeko oinarrizko motor gisa kontuan hartu

MEHATXUAK

- EAEko egoera linguistikoa kontuan ez hartzea edo marjinalizat jotzea.
- Planak eta egiturak eredu tradizionaletan oinarrituta egitea, teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerak eta euskal komunitatearen ezaugarriak kontuan hartu gabe.
- Eusko Jaurlaritzak nahikoa baliabide ekonomiko ez ematea planak edo lankidetzaproiektuak sustatzeko.
- Liburutegi-zerbitzuari dagozkion funtzioak egiteko langile-talde egokia ez izatea.

AUKERAK

- Egitura administratiboa deszentralizatu dago, eta hori positiboa da sarean antolatzeke.
- Ingurune digitala erabiliz trebatzeko aukerak daude.
- Sistema egituratzeko prozesua berandu hasi da, eta horrek besteen akatsetatik ikasteko eta IKTBe garatutako tresna ahaltsuak erabiltzeko aukera ematen du
- Profesionalek eta zenbait erakundek nolabaiteko interesa dute gai honetan, proiektu handiak abian dauden une honetan; besteak beste, Deustuko Unibertsitateko eta Bizkaiko Foru Aldundiko liburutegi berriak

3. JARDUERA-ILDOAK

1. *Politika, koordinazioa eta ekimen publikoak.*

- Liburutegiek European duten aintzatespena administrazioetan zabaltzea, gizarteak dituen erronkei aurre egiteko: kultura-, gizarte- eta informazio-erronkak, batez ere, IKTBen garapenari begira.
- Udal-liburutegiei diru eta laguntza gehiago ematea
- Liburutegi-politika bat diseinatzea

2. *Baliabideak indartzea (trebakuntza, enplegua, lankidetzak, etab.).*

- Bibliotekonomiako eta dokumentazioko unibertsitate-titulua jartzea, eta liburuzainen etengabeko trebakuntza sustatzea, sektorea arautzea eta aintzatespen profesionala lortzeko

3. *Erakundeak, erakunde eragileak eta enpresa-sektorea.*

- Kulturaren Euskal Behatokia sustatzea liburutegien zeregina kultur eskaintza eta kultur kontsumo gisa etengabe balioesteko.

4. *Produktu-irizpideak eta zeharkako elementuekiko harremana (euskara, kultura, turismoa...)*

5. *Balio-katearen eta kudeaketaren alderdiak.*

5.1. Ikerketa eta teknologia berriak

- Euskal Liburutegi Digitala garatzea

5.2. Babesa

5.3. Kontserbatzea eta leheneratzea

5.4. Balioa ematea eta hedatzea

- Irakurtzea eta liburutegiak erabiltzea sustatzeko plan bat egitea (irakurketa-mapa)

5.5. Ondarea kudeatzeko eredia hobetzea

- Ondare bibliografikoaren hainbat alderditan jardutea: zainketa, katalogazioa, hedapena eta balorazioa, eta, bereziki, funts zaharrarena
- EAEko liburutegien egoerari buruzko azterketa sakon bat egitea

6. Kultur kontsumoa dinamizatzea eta ondarea nazioartekotzea

LEHENTASUNEZKO JARDUERA-ILDOAK

1. Alde batetik, Euskal Liburutegi Sistema definitzea, egituratzea eta garatzea erakunde zentral bat sortuz. Erakunde horrek Euskal Liburutegi Sistemaren garapen-lerroak markatzeko nahikoa baliabide ekonomiko eta giza baliabide izan behar ditu, eta gerora Sistemaren buru izango da. Eta bestetik, Liburutegien Euskal Kontseilua sortzea kontsulta- eta aholku-organo gisa
2. EAEko liburutegi-sistemari buruzko arauen eta legeen garapena sustatzea
3. Liburutegietako alderdi guztietan elebitasuna bermatzeko behar diren arauak eta tresnak garatzea
4. Beste sailekin koordinatuta lan egitea, bereziki, ICTBak garatzeko proiektuetan, liburutegi-sistema optimizatuko duen komunikazio-sare bat garatzeko

5. Katalogo Kolektiboa garatzea

6. Euskal Bibliografia egitea